

19/2018 ERREGE LEGE DEKRETUA, AZAROAREN 23KOA, FINANTZEN ALORREKO ORDAINKETA-ZERBITZUEI ETA PREMIAZKO BESTE NEURRI BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ordainketa-eragiketak egiten dituzunean, zu babesteko sortutako araudi berria da. Horri esker, **ordainketa-eragiketak seguruagoak** izango dira, eta, gainera, ordainketa-zerbitzuen beste hornitzaile batzuk ere hartzen ditu barne.

Jarraian, araudi berriaren abantailak azalduko dizkizugu:

- GALTZEA, LAPURTZEA EDO BIDEGABEKI JABETZEA

Zure txartela, libreta edo online bankako sinadura elektronikoa galtzea, lapurtzea edo bidegabeki jabetzea gertatuz gero, **50 eurokoa izango da, gehienez, baimenik gabeko ordainketa-eragiketen gainean duzun erantzukizuna.**

- BAIMENIK GABEKO EDO IRUZURREZKO ERABILERA

LABORAL Kutxatik **harremanetan jarriko da gara zurekin**, zure txartela, libreta edo online banka **baimenik gabe edo iruzurrez** erabiltzen ari direla **sumatzen dugunean** edo zure ordainketa-eragiketen segurtasunerako mehatxuak daudela uste dugunean.

- ORDAINKETA-ZERBITZUEN HORNITZAILE BERRIAK

Ordainketa-zerbitzuen bi hornitzaile berri sortu dira. Horiek finantza-erakundearen eta bezeroaren arteko bitartekariak izango dira, betiere bezeroak aurretiaz horretarako baimena eman badu, ordainketak eginez edo bere kontuei buruzko informazioa emanez.

Araudi berria aplikatzearen ondorioz, aldatu egin beharko dira ageriko kontuen, txartelen eta ordainketa-zerbitzuen kontratuak. Gainera, **titular zaituzten kontratuen kopia bat eska dezakezu zeure ohiko bulegoan**, eta, aldaketa horietakoren bat onartzen ez baduzu, kontratuok ezeztatu egin ahal izango dituzu, inolako kosturik gabe.